

Au esanda alkate ta apaizburu jaunak gelatik irten dira.

Euskaltzaindiak erabaki du :

Azkue jaunak itzaldi bat egingo du : bere gaia *Corografía de Guipúzcoa del P. Larramendi y las costumbres vascas*.

Aita Olabidek beste bat : gaia : *Significación y valor del Imposible vencido*.

Eguskitza jaunak Meza nagusigo itzaldia bere gain artuko du.

Euskaltzaindiak diruz ezin lagun egin lezake bañan liburu batzuek bialiko ditu, euskal-mutil-neska artean banatzeko.

III.—Urgazle F. Saint Jayme-ren bigarren eskutitza irakuri da : esaten digu : bere gogoia betetzeko naiko litzaiokela, *Argia*-k noizean beingo txandaz, lapurtañez idazki batzuek argitaratzea. Erantzun bear zaio, *Argia*-gana zuzentzeko.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Andoain'go Udal - etxean 1929'ko Agoñila'ren 21'an.

Euskaltzain jaun abek batzarétara datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Altube, Eguskitza, Lakonbe, A. Intza, Etxegarai, Landeñetxe, Olabide, Intzagarai ta urgazletatik Manuel Lekuona ta Nikolas Ormaetxea jaunak.

Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak irakuri digu: Intxauspe apezak Bayonako seme ospetsu Charles Bernadou-ri egin zion eskutitz bat. Oraindano argitaratu ez dan eskutitz

eder ta luze onetaz, adierazten dio, Chao nor izan zan. Euskaltzaindiak pozik entzun du eskutitzak dasana.

II.—Eguskitza jauna izendaturik dago iztegi-laneko batzorderako. Beronek esan digu, dakigunez, eguneroko eskola daukala Lekeition, ta onek galerazoten diola batzordeko izatea.

Euskaltzaindiak erabaki du: Batzorde ortako lan-kide izan ditezala: Azkue, Olabide ta Ormaetxea.

III.—Azkue jaunak esan digu Aranzabe apaiz jaunak eskutitz bat biali diola, zerbaiteren galdez. Euskaltzaindiari etzaio ezer galdetu ta ez dauka zer erantzunik.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik Euskaltzaindia elizarako altxa da, oraintxe elizkizun eder batez asten bai-da, Aita Larāmendi zanari eskeñitako euskal-eguna.

Otoitzez amaitu da batzaraldia.

Andoain'go Udal-etxean 1929'ko Agoñila'ren 22'an.

Meza nagusi eder baten ondoren Euskaltzaindia bildu da ta aurreko batzarëan agiri diran jaun berak dagoz.

Otoitz egin da.

I.—Aita Lhande-ri eskatu bear zaizkio, eman alba-lezazke bere iztegirako bildu ta gertu dituen gaiak.

II.—Iztegiko lanetan jardun degu batzaraldiko garairik geiena.

Ta beste garirik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au. Urëngo ilean ez da batzaraldirik izango.